

FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresa guztietan bezala garrantzitsuena bezeroak edukitzea da, hau baita irabaziak ateratzeko diru iturri nagusia, eta ondorioz, enpresa aurrera ateratzeko ezinbestekoa dena. Hau posible izan dadin, hasieran bezeroak bilatu beharko ditugu, horretarako, Brandy Euskal etxeekin harremanetan jarriko da, gure enpresaren berri emateko bera baita gure taldean salmentarako abilezia duena. Trebetasun hau garatuz bera izango da publizitateko irudia zirriborratuko duena eta guztiok ados gaudenean, sare sozialetara eta webgunera igoko dugu.

Zirriborro hori egin ahal izateko, Iratxek azalduko dio deien eta zalantzen bidez beharrezkoak iruditu zaizkion beharrak, horrela bezeroei publizitatea erakargarria egingo zaie eta beraien zalantzetan oinarritzen garela jakitean, konfiantza gehiago izango dute guregan. Horretarako, telefono mugikor bat izango dugu, eta esandako guztia beteko dugu konfiantza guregan mantendu dezaten.

Munduko negozio gehienetan bezala, publizitatea oso baliabide garrantzitsua da proiektu bat ezagutzera emateko, eta garrantzi handiagoa du enpresa bat hastera zoazenean, gure kasua den bezala. Izan ere, merkaturan berria zara eta inor ez zaitu ezagutzen, beraz, bezeroen arreta erakartzea da, enpresari izen bat emango diona. Horregatik, propagandari arreta handia ipini behar diogu, baita ere, hasieran etekin gutxi aterako dugulako eta dirua errez joango zaigulako saskiak egiteko materialak zein produktuak erosten. Hortaz, iragarkiak egitea beharrezkoa izango zaigu, gure enpresa ezagutzera emateko eta bezeroak irabazteko.



Gure webgunea sortzeaz eta aurrera eramateaz Libe arduratuko da. Txikitatik informatikako ikastaroak egin ohi ditu; horregatik, oso treba da honetarako. Berak sistema informatikoa eramango du aurrera eta dauden nobedade nahiz berri guztiak eguneratzeaz eta zabaltzeaz arduratuko da. Hasieran hori egiteaz bakarrik arduratuko da, webgunea eta sare sozialak izango direlako gure lanerako tresna nagusia. Behin hauek eginda daudenean Brandyk egindako esloganarekin bat datorren irudia igoko du.



Maialen antolaketarako abilezia duenez, iristen diren produktuak sailkatzeaz arduratuko da eta produktuen prezioak apuntatuko ditu hilabete bukaeran Iratxeri ekonomia lanak errazteko, honela aurrekontuak eta nominak erraztuko dizkio. Produktuak ordenatuta egongo direnez, Maialenek errazagoa izango du

saskiratzeko garaian, hala eta guztiz ere bakoitzak lan bat eduki arren, denok lagunduko diogu Maialeni saskiak egiten.

Bakoitza bere profilaren arabera lan bat egin beharko du baina guztia gure kabuz ezin dugunez egin, proiektua aurrera eramateko funtsezko elkarte batzuen laguntza beharko dugu: *Laboral Kutxa* hasieran mailegu bat izateko, *Aikur* eta *Dastatu Basque Country Gourmet* saskiak euskal produktuez betetzeko, *Jimdo Free* webgunea sortzen laguntzeko, *Mensajería Low Cost* saskiak internazionalki entregatzeko eta *Uggasa* lokal bat izateko.



Gure lanaren ezaugarrietako bat, lokaletik kanpo ere lan egin dezakegula da; hau da, ez da beharrezkoa izango egunero laurak lokalean elkartzea lanarekin jarraitu ahal izateko. Horregatik, ez dugu inongo ordutegirik izango lanean aritzeko, baina, hala eta guztiz ere, astero elkartuko gara gure enpresa nola garatzen doan aztertzeko eta Gabonak bezalako garaietan bilera gehiago egin beharko ditugu, publizitatearen irudiak adosteko. Horrez gain, egindako lana elkarren artean partekatuko dugu, honela zalantzaren bat izanez gero denen artean argituko dugu eta elkarri lagunduko diogu, lan taldean aritzea baita gure helburu nagusietako bat.

Elkarren artean beti lagunduko gara, eta beti izango dugu bata bestearen sostengua. Gure taldeko norbait lehertzen bada, eta gure proiektuarekin aurrera jarraitu nahi ez badu, beste guztiak laguntzeko eta animatzeko prest egongo gara. Guztiok bat garelako, talde bat gara!

